

# OPOR GARAIKO BIZIPENEN KUTXA

4 eta 8 urte bitarteko haurrekin etxean jolasteko proposamenak

Zer aurkituko duzue? Etxean egongo garen opor garai honetan seme- alabekin euskaraz jolasteko eta euskarazko bizipenen kutxa egiteko proposamenak.

Astero jolas bat egingo dugu. Jolas horretan egindakoa edo beharrezko materiala kutxan sartuko dugu. Amaitutakoan kutxan dauden jolasak errepikatzeko momentua izan daiteke.

Ekin jolasei!

## LEHENGO ASTEA: Kutxa prestatu

### Zer egingo dugu?

Etxean izan dezakegun materialarekin kutxa poli bat prestatu elkarrekin (seme-alaba eta gurasoek).

### Oporretako kutxa zertarako den azaltzeko une egokia izan daiteke

Kutxaren helburua euskararekin eta euskaraz jolasteko erabiliko dugula esateko momentua izan daiteke. Euskara asko ez dakiten gurasoek gainera seme-alabei laguntza eskatzeko baliatu dezakete momentua. Umeei irakastea asko gustatzen zaie eta ziur lagundu nahi digutela!



ebete